

Intxaurrondo



Bi urte lagun eta bizikide

Joan den larunbatean Txara 1-eko Bizikidetzaren Unitate Berezien (BUB) bigarren urtemuga bete zen. Urtemuga ospatzeko jaia antolatu zuten.

BUB hiru etxebizitza dau- de Txara 1-ean. Batean, adimen urriko lagunak bizi dira. Beste batean, egu-

neroko bizitzan laguntza behar izaten duten erretiratuak, eta hirugarrenean, elbarritu fisikoak. Bertan bizi direnei bizimodua erabat aldatu zaie. Lehen erretiratuak beren familiarekin bizi ziren. Elbarritu fisikoak, berriz, Matia Zahar Etxean eta adimen urriko pertsonak Uliazpi zentroan. Egun, etxebizitzotako 18 lagunek, bizimodu autonomoa egiten dute, ohiko zentro

berezietan zerikusirik ez duten etxebizitzotan.

"Helburua pertsonon bizikalitatea hobetzea da", esan digu Ainhoa Fernandez gizarte langileak.

Bere ustez, bi urte hauetan bertako lagunak bizimodu berrira ohitu dira.

"Hasieran kostatzen zitzaien beren ikuspegia aldatzea, izan ere, ohiko zentroetan bizi izan dira, eta horietan dena egina ematen zaie, asistentzialismo handiegia dago. Gu gaixoen autonomia susta-

Txarako etxebizitza berezietan 18 lagun bizi dira

tzearen aldekoak gara", dio.

Joan den larunbatean, Txarako lagunak primeran pasa zuten. Zorionak eta urte askotarako!

Zinema kalean

Hil honetan hainbat film ikusi ahal izango dira Gabriel Zelaia plazan: "Scary Movie" (hilak 18), "Vertigo" (hilak 19), "La Comunidad" (hilak 20) eta "Granujas de medio pelo". Emanaldiak 22.30etan hasiko dira.

Martutene


Ikastaro berriak gaztelekuan

Hilaren 9an Martuteneko gaztelekuko ikastaro berriak hasiko dira. Oraingoan, zirko, DJ, perkusio eta antzerki ikastaroak antolatu dira.

DJ ikastaroa izango da hasiko den lehena, hilaren 9an. Lau egunen buruan disc-jockey lanetan jarduteko oinarrizko ezagutzak irakatsiko dira. Trukean 1.800 pezeta ordaindu beharko dira. Hurrengo egunean, hilaren 10ean, antzerki, perkusio eta zirko ikastaroak hasiko dira. Lehendabizikoa 10 egunez

luzatuko da, eta matrikula 3.500 pezetakoa da. Zirko tailerra, berriz, hilaren 19an amaituko da eta parte hartzeko 2.800 pezeta ordaindu beharko dira. Iraupen bera izango du perkusio ikastaroak, baina matrikula pixka bat merkeagoa da: 2.000 pezeta.

Ikastaroak goizeko 11.00-etan hasi eta 13.30etan amaituko dira. Antzerki, zirko eta perkusio ikastaroak asteartetik ostegunera egingo dira eta DJ ikastaroa, berriz, astelehenetik ostiralera. Informazio gehiago nahi izanez gero, 943-466492 telefonora dei dezakezu.



Hilaren 10ean zirko ikastaroa hasiko da.